

IRAKASGAIAREN TITULUA/ TÍTULO ASIGNATURA: [EL LENGUAJE UNIVERSAL DEL CINE](#)

Irakaslea/Profesor/a: **Belén Ruiz Soroa**

Ikasgaiaren azalpena/Descripción de la asignatura

Filmekin eta telesailekin disfrutatzen dugunean, ez gara konturatzen beti dagoela gure begirada eta emozioak bideratzen dituen ikuspuntu bat ikus-entzunezko fikzioen irudi itxuraz neutral eta kaltegabeen atzean. Ikastaro honek aurkeztu ditu hizkuntza zinematografikoaren eta ikus-entzunezkoaren oinarriak, eta aztergai ditu filmak eta serieak sortzeko faseak, helburua izanik ulertzea leku guztietara iritsi eta munduaz dugun pertzepzioa baldintzatzen duen baliabide baten irismen soziala eta kulturala.

Gaitasunak/Competencias

- Errealizazio zinematografikoaren prozesuaren ikuspegi orokorra lortzea.
- Ikus-entzunezko hizkuntzaren oinarritzko kontzeptuak eskuratzea, filmak eta serieak ikustean eta aztertzean aplikatzeko.
- Gaitasun kritikoa garatzea, errealizazio zinematografikoaren mekanismoak identifikatu eta ulertzeko, eta, era horretan, zinemaren magiaz gozatzeko, informazio guztia eskuetan.
- Ikus-entzunezko fikzioak gure kulturen eta fenomeno sozialak ulertzeko dugun moduan duen eragina baloratzea.

Edukiak/Contenidos

1. SARRERA

Zinemaren hastapenak: errealitatea erregistratzeko modu berria. Zinemaren publikoa sortzea. Ekoizpen zinematografikoaren garapenaren mugarriak. Fikziozko zinema eta zinema dokumentala. Telebista sortzea.

II. TELEBISTAKO SERIEAK

Panorama historiko laburra. Telenobeletatik eta sitcom-etatik antologia serieetara. Ikusleriaren fenomenoak. Serieen urrezko aroa.

III. IKUS-ENTZUNEZKO HIZKUNTZAREN OINARRIAK

Hizkuntza zinematografikoaren oinarritzko elementuak. Gutxieneko unitate esanguratsua –planoa–, haren tamainak eta balioak. Hartualdiak, planoak eta sekuentziak. Planoak, kameraren angeluazioaren arabera.

IV. NOLA EGITEN DIREN FILMAK ETA SERIEAK

Forma zinematografikoak ikustea eta sortzea. Planoaren konposizioa. Kamera mugimenduak: planoaren balioak dinamizatzea eta indartzea. Ondo ondoko bi planoren arteko jarraitutasuna eta lotura. Plano sekuentziaren aukera.

V. ZER MATERIALEZ EGINAK DAUDEN FILMAK. ZINEMAREN PERTZEPZIOA

Zinema eta ametsak. Zinemaren errealitate zirrara. *Willing suspension of disbelief* (sinesgaiztasunaren borondatezko etenaldia). Zinemaren eta fluxu onirikoaren arteko paralelismoak. Film eta serieetako sekuentzia hautatuak.

VI. NORK EGITEN DITUEN FILMAK ETA SERIEAK: FILMAKETA TALDEA

Ikus-entzunezko ekoizpenaren etapak. Ekoizpen baten departamentuak eta profesionalak: zuzendariak, ekoizpena, kamerak, zuzendaritza artistikoa, aktoreak, efektu berezien eta bisualen diseinua, etab. Serieen egileen auzia.

VII. GIDOIAREN EGITURA. ISTORIOAK KONTATZEA ZINEMAREN BIDEZ

Film narrazioaren gidoiaren eta artikulazioaren oinarriak. Gidoi originala edo egokitua. Pertsonaiak sortzea. Genero zinematografikoetarako hurbilpena.

VIII. TELABISTAKO SERIE BAT SORTZEA

Idea originala. Serie baten *bibliaren* kontzeptua. Pertsonaiak sortzea; bilbeen mapa. Fikziozko serieen generoak. Miniserieak *prime time*-en, eguneko serieak. Telebistatik zinemara.

IX. FILM ERREPRESENTAZIOAREN ESPAZIOA LANTZEA

Ekoizpen diseinua eta zuzendaritza artistikoa. Argazkia. Irudiaren konposizioa eta enkoadraketa. Behar den itxura bisuala lortzeko argiztapena. Iraultza sorkuntzan: agertoki birtualak.

X. SOINUA

Zinema mututik soinudunerako urratsaren inplikazioak. Soinu iturriak: ahotsak, soinu efektuak eta musikak. Musika girotze diegetikoa eta estra diegetikoa.

XI. IKUS-ENTZUNEZKO MUNTAKETA: FILMATUTAKO MATERIALA HAUTATZEA ETA ELKARTZEA

Zentzu narratiboa sortzea. Filmatutako materialaren tratamendua. Espazioa eta denbora artikulatzea. Jarraitutasun bisuala eta jario narratiboa.

XII. ZINEMAKO ETA SERIEETAKO MUSIKA

Pelikuletarako konposatutako musika. Musika klasikoa eta zinema. Film musikalak. Musika eta generoak.

XIII. IKUS-ENTZUNEZKO SORKUNTZAREN JOERAK

Ikus-entzunezko zabalkundea eta marketina: publizitate eta sustapen estrategiak. Jaialdiak. Dokumentalaren eta fikzioaren arteko mugak: *true crime*-aren goraldia eta muga etikoak. Adimen Artifiziala.

Metodologia/Metodología

Klaseen oinarriak:

- Landu beharreko gaia azaltzea eta garatzea ikus-entzunezko aurkezpenen bitartez.
- Pelikuletako eta serieetako zati hautatuak ikustea eta aztertzea.
- Ikasleen partaidetza aktiboa, galderak eginez eta materialen analisi kritikoa bultzatuz.

Bibliografia/Bibliografía

Aguilar, Pilar: *Manual del espectador inteligente*. Madril, Fundamentos, 1996.

Barnwell, Jane: *Fundamentos de la creación cinematográfica*. Bartzelona, Parramón Ediciones, S.A., 2009.

Casajosa Virino, Concepción: *La cultura de las series*. Bartzelona, Laertes, 2016.

Cousins, Mark: *Historia del cine*. Bartzelona, Blume, 2004. DVD formatuan ere, serie dokumental gisa, 2011.

—. *Women make film: una nueva road movie a lo largo de la historia del cine*. Serie dokumentala DVD formatuan, 2018.

—. *Historia del cine: una nueva generación* (2010etik 2021era). DVD, Avalon, 2021.

Gubern, R.: *Historia del cine* (2 bol.). Bartzelona, Lumen, 1971; berrarg. eta eguneratua Bartzelonan, Anagrama, 2014, eta trinkoan (I bol.), Bartzelona, Anagrama, 2016.

D. Katz, Steven: *Plano a plano. De la idea a la pantalla*. Madril, Plot Ediciones, 2000.

Landau, Neil: *Cómo se hacen las grandes series. La televisión a la carta*. Madril, Rialp, 2020.

Lumet, Sidney: *Cómo se hacen las películas*. Madril, Rialp, 2010.

Mckee, Robert: *El guion*. Bartzelona, Alba Minus, 2009.

Martínez Torres, Augusto: *Diccionario Espasa Cine*. Madrid, Espasa Calpe, 1996.

Murch, Walter: *En el momento del parpadeo. Una perspectiva sobre el montaje cinematográfico*. Madril, ECAM eta DAMA, 2021 (arg. zabaldua eta eguneratua).

Sánchez Escalonilla, Antonio: *Del guion a la pantalla*. Bartzelona, Ariel, 2016.

Sánchez Noriega, José Luis: *Historia del cine. Teorías, estéticas, géneros*. Madril, Alianza editorial, 2002 arg. zabaldua eta eguneratua, 2018.

Vogler, Cristopher: *El viaje del escritor. El cine, el guion y las estructuras míticas para escritores*. Madril, Ma Non Troppo, 2002.

Parkinson, David: *100 ideas que cambiaron el cine*. Bartzelona, Blume, 2012.

Webguneak

Martínez-Salanova Sánchez, Enrique. *Educomunicación. Cine y educación. Aprender de cine*.
<https://educomunicacion.es/cineyeducacion/aprendercine.htm>